



Pueblos Vivos de Navarra
Nafarroako Herriak Bizirik

DEIALDIAREN OINARRIAK

1

**PROIEKTUAREN
AURKEZPENA**

2

**ZEHARKAKO LAN LERROEN
GARAPENA**

3

**DEIALDIRAKO
SARBIDEA**

1 PROIEKTUAREN AURKEZPENA

1

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Informazio nagusiaren laburpena egiten duen atala da eta 3 azpiataletan laburbiltzen da

Deialdiaren xedea

Zeharkako lan lerroak

Ibilbidea

Deialdiaren xedea

VIVID Herriak Nafarroako landa udalerrietatik despopulazioaren aurkako borroka bultzatzeko proiektu bat da. Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendaritza nagusiaren laguntza eta finantzaketarekin Fundación Empleak bultzatua.

Proiektuak zeharkako bost lan hildo ditu eta programan parte hartzearen helburuak, konpromisoak eta onurak horren baitan zehazten dira: herritartasun aktiboa, proiektu estrategikoa, VIVID sarea, talentu gaztea eta aldi baterako etxebizitza.

2024an, 10 herrirekin lan egitea izango da proiektuaren ardatza, despopulazioari aurre egiteko udal mailako proiektu bati ekiteko. Proiektuak behetik gora joango dira, hau da, lurralde bakoitzeko gogoetek eta erabakiek markatuko dituzte etorkizuneko ekintzak. Udalerriak despopulazioari aurre egiteko aurretiazko lana edo ekimenak baditu, VIVID Herriak errealitate horretara egokituko da. Prozesu gidatu horretan sartuko dira lurraldeko udalak, erakundeak eta enpresak eta gizarte zibilaren sarea.

Aurtengo deialdia, VIVID Herriak proiektuan sartzeko mekanismoa da. Ekimenean parte hartzen duten 10 herriek Emplea Fundazioak koordinatu eta mentorizatutako lan prozesu bat biziko dute. Emplea Fundazioa, beste udalerrri eta eragile interesgarri batzuekin konektatzeaz gain landa berrikuntzako proiektuetan aditua den kanpoko erakunde gisa arituko da. Zure udalerrria 10 hauen artean egotea nahi baduzu, hemen aurkituko duzu beharrezko informazio guztia.

VIVID Herriak proiektuak proiektzio estrategikoa eta jarraitasuna izango du datoen urteetan. 2024an garatutako esperientzian oinarrituta, udalerrri berriak batu ahal izango dira hurrengo urteetan. Dagoeneko hautatua dauden eta beren prozesua hasi duten herriek aukera izanen dute despopulazioari aurre egin eta proiektuarekin jarraitzeko.

VIVID Herriak proiektuaren metodologia, aurretik, San Martin Unxeko VIVID, landa berrikuntzako laborategian oinarritu eta aztertua izan da.

Zeharkako lan ildoak

**Herritar
aktiboak**

**Proiektu
estrategikoa**

**VIVID
sarea**

**Talentu
gaztea**

**Aldi baterako
etxebizitzaren
soluzioak**


Zeharkako lan ildoak

Zehar ildoak	Helburu partekatuenak	Onurak	Konpromezuak
Herritar aktiboak	HP 1 Lan prozesuan zehar gizarte zibila aktibatzea haren lankidetzaz izateko	<ul style="list-style-type: none"> ○ 1.1 Helburu zehatzetan oinarritutako lan saio bateratuak dinamizatzea ○ 1.2 Pertsona arduratsuak ahalduztea eta pertsona horrekiko koordinazioa izatea ○ 1.2 Tokiko biztanleriaren aktibazioa 	K 1 Prozesuan konprometitutako gutxieneko herritar masa bat mobilizatzea: gutxienez 5 pertsona joatea 4 lan saio presentzialetara.
Proiektu estrategikoa	HP 2 Udalerriaren erronkak finkatuko dituen diagnostiko bat sortzea, baita eronka horiei aurre egiten lagun dezakeen norabide zehatz bat ere.	<ul style="list-style-type: none"> ○ 2.1 Egoeraren diagnostikoa eta despopulazioaren aurkako erronka nagusiak argi izatea ○ 2.2 Nabarmendutako ildoetarako soluzioak diseinatzea 	<ul style="list-style-type: none"> K 2.1 Eragile estrategikoei (personak, enpresak, etab.) loturak ahalbidetzea elkarrizketak eta bilerak burutu ahal izateko. K 2.2 Udal taldearekin lankidetzaz ahalbidetzea K 2.3 Beharrezkoak diren informazio, datu zein estatistikak ahalbidetzea.
VIVID sarea	HP 3 Premiak eta arrakasta kasuak partekatzen dituzten udalen, erakundeen eta konektatutako pertsonen sare bateko kide izatea.	<ul style="list-style-type: none"> ○ 3.1 Inplikaturako beste udalerririk batzuekin sareko ekitaldietan parte hartzea, ekintza ildo komunak ezagutu eta konektatzeko. ○ 3.2 Ildo estrategikoetarako kontaktu garrantzitsuak eskuratzea 	K 3 2024an egingo diren sareko ekitaldietan presentzialki parte hartzea.
Talentu gaztea	HP 4 Ekintzaile izateko borondatea duten ikasle gazteak erakartzea, ideia eta energia ekarriaz, herriko funtsezko proiektuen parte izan daitezen.	<ul style="list-style-type: none"> ○ 4.1 Landa ingurunean proiektuak egin nahi dituzten goi mailako prestakuntza zentroetako gazteekin konektatzea. ○ 4.2 Gazteen talentuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarlaneko profesionalen koordinazioa ○ 4.3 Herritarrekiko integrazio dinamikak 	K 4 Udalerriaren garapeneak ideiak eta energia emateko borondatea duten ikasle gazteak erakartzeko prestasuna erakustea eta horretarako tokiko baliabideak eta azpiegiturak ahalbidetzea.
Aldi baterako etxebizitzaren soluzioak	HP 5 Birpopulatzeko proiektuetan parte hartzen duten pertsonentzako aldi baterako etxebizitzaren konponbideak aztertzea.	○ 5 Udalerriko errealitatean oinarrituta, doako behin behineko etxebizitzaren irtenbideak definitzea	K 5 Doako behin behineko etxebizitzaren irtenbide bat garatzen saiatzeko lankidetzaz konprometuz izatea.

**1 PROIEKTUAREN
AURKEZPENA**

Ibilbidea





2

ZEHARKAKO LAN ILDOEN GARAPENA

2

ZEHARKAKO LAN ILDOEN GARAPENA

Jarraian, aurreko ataleko ildo estrategikoak laburtzen dituen taularen garapena, testu formatuan, azalera da. Oraingoan, honako atal hauek zerrendatu eta sakonago azalduko dira:

Helburu partekatuak

Onurak

Konpromezuak

Helburu partekatuak

Zer egingo dugu?

HP 1

Gizarte zibila lan prozesuan zehar aktibatzea haren lankidetzaz izateko

Despopulazioaren aurka borrokatzeko udal estrategiaren funtsezko zati gisa, gizarte zibiletik datozen pertsonak integratuko ditugu proiektuan. Lan saioetara joango dira eta hainbat erantzunkizun mota hartuko dituzte bere gain.

Herritar
aktiboak

HP 2

Udalerriaren erronkak identifikatuko dituen diagnostiko bat eta aurre egiten lagun dezakeen norabide bat sortzea.

Herriaren egoerari buruzko azterketa bat garatuko dugu, kontsultatutako iturriek hautemandako erronka nagusiak islatuz. Horiei aurre egiteko lan ildo estrategikoak ezarriko ditugu.

Proiektu
estrategikoa

HP 3

Premiak eta arrakasta kasuak partekatzen dituzten udalen, erakundeen eta konektatutako pertsonen sare bateko kide izatea.

Konexioak ezarriko ditugu beste udalerriri eta erakunde batzuekin, despopulazioaren aurka borrokatzeko proiektu estrategikoak garatuz, konponbideak transferitzeko, proiektu sinergikoak sustatzeko eta energia batzeko gai izango den sarea osatuz.

VIVID
Sarea

Helburu partekatuak

Zer egingo dugu?

HP 4

Ekintzaile izateko borondatea duten ikasle gazteak erakartzea, markatutako norabidean ideiak eta energia emateko.

Behin diagnostiko estrategikoa eta lan ildoak ezarrita, erronka horiek talentu gaztearekin lotuko ditugu. Talentu hori hainbat proiektutan txertatuko da. Fase hau 2025ean hasiko da. Baina urte honetan zeinbat gerturakta burutuko dira.



HP 5

Birpopulatze proiektuetan parte hartzen duten pertsonentzako aldi baterako etxebizitzaren konponbideak aztertzea

Gure herrian despopulazioaren aurka borrokatzeko proiektu estrategikoetan parte hartzen duten pertsonak doan hartzeko gai diren irtenbideak diseinatzeko aukerak identifikatuko ditugu.



Onurak

Zer jasoko du udalerriak?

01.1

Baterako lan saioak dinamizatzea, helburu zehatzetan oinarrituta

Saio batzuk egingo dira udal taldearekin eta gizarte zibileko boluntarioekin batera. Hauek Emplea Fundazioak dinamizatuak izango dira, diagnostikoa egin eta ekintza ildoak sortzeko.



01.2

Arduradun baten ahalduntzea eta harekiko koordinazioa

Aldi berean, komunikazioa eta inplikazio zibila hobetzeko, arduradun bat izendatuko da. Arduradun hori une oro egongo da harremanetan proiektu taldearekin eta herriarekiko funtsezko erantzunkizuna hartuko du bere gain.



Onurak

Zer jasoko du udalerriak?

0 2.1

Egoeraren diagnostikoa eta despopulazioaren aurkako erronka nagusiak

Udalak, gizarte zibilak eta enpresek eragindako despopulazioaren aurkako borrokari dagokionez, udalerriak bere kasuistikaren eta egoeraren diagnostikoa izango du.



0 2.2

Hautemandako ildoetarako soluzioak diseinatzea

Diagnostikoan atzenmandako erronka eta ildo estrategikoenekin bat etorriz, Eemplea Fundazioak lan ildo batzuk diseinatzen lagunduko du, etorkizuneko irtenbide berritzaile gisa, udalerriari lehen urratsak ematen lagun diezaioten.



Onurak

Zer jasoko du udalerriak?

O 3.1

Beste udalergi batzuekin sareko ekitaldietan parte hartzea

Sareko ekitaldiak oso topagune baliotsuak izango dira beste udalergi, eragile eta pertsona batzuen esperientzia ezagutzeko. Horrekin herriak beste esperientzia batzuetatik ikasi ahal izango du, norberarena azaldu eta lankidetzara sare erabilgarri eta motibatua aurkitu.



B 3.2

Ildo estrategioetarako garrantzitsuak diren kontaktuak erraztea

VIVID inguruneko sare anitzari esker, udalergi bakoitzean diseinatutako ildo estrategikoei garapenerako giltzarri diren erakunde edo pertsonen kontaktuak izango dituzte, lehen urratsak ematea erraztuz.



Onurak

Zer jasoko du udalerriak?

04

**Landa ingurunean
proiektuak egin nahi dituzten
goi mailako prestakuntza
zentroetako gazteekin
konektatzea**

VIVID herriek espero dute udalerrri parte hartzaileak unibertitateetako eta beste prestakuntza zentro batzuetako gazteen helmuga bihurtzea, proiektuak eta praktikak garatzeko, 2024an sortutako oinarriari esker.

Gazte
talentua

05

**Doako aldi baterako etxebizitza
aukerak sortzeko irtenbide bat
diseinatzea, udalerrriaren
errealitatean oinarrituta**

Garapenerako palanka eta pertsonak erakartzeko tresna erabilgarri gisa, udalerrian doako behin behineko etxebizitza irtenbide bat sortzeko lan egingo da, etorkizunean despopulazioaren aurka borrokatzeko proiektu bat garatuko duten pertsonak hartatzeko.

Aldi baterako
etxebizitzaren
soluzioak

2

ZEHARKAKO LAN ILDOEN GARAPENA

Konpromezuak

Zer bete beharko du udalerriak?

K 1

**Prozesuan
komprometitutako
gutxieneko herritar masa
mobilizatzea: gutxienez 5
pertsona bertaratzea aurrez
aurreko 4 lan saioetara.**

Baterako lan saioek balioa izan dezaten, beharrezkoa da udalerrria gai izatea saioetan gutxieneko pertsona masa bat sartzeko.



Konpromezuak

Zer bete beharko du udalerriak?

K 2.1

**Lotura eragile
estrategikoekin (pertsonek,
enpresak, etab.),
elkarrizketak eta bilerak
egiteko.**

Diagnostikoa sortzeak eta ondoren diseinatutako soluzioen testuak lurraldeko pertsona eta erakundeekin harreman arin eta zuzena izatea eskatuko du, udalaren konpromezuari esker.



K 2.2

Udal taldearen lankidetzak

Prozesuan zehar, alkateak, zinegotziek eta talde teknikoak parte hartzea beharrezkotzak jotzen da lan ildo desberdinak behar bezala garatzeko: bileretara eta ekitaldietara joatea, gizarte zibila deitzea, etengabe komunikatzea eta, oro har, alde aurreko jarreera eta babes adieraztea.



K 2.3

**Datuak eta estatistikak
ematea**

Litekeena da demografiarekin edo udalerriko jarduera ekonomikoarekin zerikusia duten datu historiko batzuk diagnostiko prozesuan zehar kontsultatzea egoera behar bezala aztertzeke.



Konpromezuak

Zer bete beharko du udalerrriak?

K 3

2024an egingo diren sareko ekitaldietan parte hartzea

2024an, gutxienez sareko bi ekitaldi egitea espero da. Horretarako, udal onuradun guztiei parte hartzeko eskatuko zaie, baita landa garapenarekin zerikusia duten eta bertatuko diren beste eragile batzuei ere..

VIVID
sarea

K 4

Udalerrriaren garapenean ideiak eta energia emateko borondatea duten ikasle gazteak erakartzeko alde z aurreko jarrera erakustea eta horretarako, totkiko baliabideak eta azpiegiturak erabiltzea.

Proiektuarekin lankidetzan aritzeko borondatea espero da, baita proiektuan erakarpenak egiteko borondatea duten ikasle gazteen harrerarekin ere.

Gazte
talentua

K 5

Doako ostatu irtenbide bat garatzen saiatzeko lankidetz a konpromezua

Udal taldearen konpromiso aktiboa funtsezkoa izango da doako aldi baterako etxebizitz en soluzio posibleak batera diseinatzeko, hori funtsezkoa baita etorkizuneko dinamiketarako eta herritarrak herrira erakartzeko.

Aldi baterako
etxebizitz en
soluzioak

3

DEIALDIRAKO SARBIDEA

3

DEIALDIRAKO SARBIDEA

Aurkeztu nahi diren erakundeentzako, deialdiaren mekanismoak laburtzen ditu atal honek

Erakunde onuradunak

Eskabideak aurkeztea

Hautatzeko irizpideak

Deialdiaren xedea

Deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten Nafarroako toki entitateak:

5000 biztanle baino gutxiago izatea (Abenduaren 5 eko 1085/2023 Errege dekretuan agertzen den urtarrilaren 1eko udal errolda hartuko da kontuan)

“Despopulazio arriskua” balorazioarekin agertzea (edozein mailan, “gainbera moderatutik” “muturreko arriskura” arte) [Nafarroako Despopulazio arriskuan dauden gune eta udalerrien maparen](#) arabera.

Aurreko paragrafoan adierazitako udalerrietan kokatutako kontzejuek ere jaso ahal izango dituzte laguntzak. Deialdi honen ondorioetarako, kontzejuak beren udalerrien arrisku talde berean daudela ulertuko da.

Horrez gain, entitate onuraduntzat hartuko dira, halaber, Nafarroako Despopulazio Arriskuan dauden Eremu eta Udalerrien Mapan trakzio-ahalmena duten toki entitateak, betiere 5.000 biztanle baino gutxiago badituzte.

Baztanen kasuan, kontuan hartuz udal bakarra dela, hamabost udalerrik osatua, baina ez kontzejuek, hamabost herri horiek izan daitezke proiektuaren onuradun, kontzejuak bezalaxe.

Lehentasuna emanen zaie aurrekontu esleipen zehatza duen plan edo estrategia baten barruan ez dauden udalerriei.

Aurrekontu esleipenak, diru-laguntzak, hitzarmenak eta jarduera propioak dituen plan edo estrategia batean barnean ez dauden eta berariazko batzorde parlamentariorik ez duten udalerriak lehenetsiko dira.

3

DEIALDIRAKO SARBIDEA

Deialdiaren xedea

Zerbitzuaren kostuaren zati bat, biztanle kopuruaren arabera proportzioan jasoko dena, finantzatzea:

2500 - 5000 biztanle arteko udalerrak: 5000€

1000 - 2500 biztanle arteko udalerrak: 3000€

500 - 1000 biztanle arteko udalerrak: 1800€

250 - 500 biztanle arteko udalerrak: 1000€

250 biztanletik beherako udalerrak: 750€

Eskabideak aurkeztea

Aurkezteko epea:

Eskabideak eta erantsitako agiriak apirilaren 15tik maiatzaren 17ra bitartean aurkeztuko dira, bi egun horiek barne. Epe horretan, erakunde eskatzaileek aukera izango dute Emplea Fundazioaren talde teknikoaren laguntza izateko zalantzak kontsultatu eta dagokion hautagaitzari forma emateko, posta elektronikoaren, telefono deiaren edo bilera birtualen bidez..

Aurkezteko modua:

Eskabideak eta erantsitako dokumentazioa honako helbide honetara bidaliko dira: pueblosvivid@vividrural.com

Aurkeztu beharreko agiriak:

Emandako memoria teknikoaren eredia osatu beharko da eta honako atal hauek izango ditu:

Erakundearen datu generikoak

Erakundearen testuingurua

Despopulazioaren arloan udalerriak dituen erronkak, bai eta dauden aukerak eta ahuleziak ere.

Aurrejarrera eta motibazioa: parte hartzeko interesaren xehetasuna

Esperientzia eta ikuspegia: Birpopulaketaren eta lurralde garapenaren arloan garatutako ekimenen eta/edo etorkizunean garatzea onuragarritzat jotzen diren ekimenen xehetasuna.

Gizarte zibilaren babesa: Herrian prozesuan lagundu eta parte hartu ahal izateko dagoen masa kritikoaren xehetasuna, sostengu gutunak aurkeztuz.

Udalerriak hautatzeko irizpideak

Bi motatako irizpideak egongo dira udalerri hautagaiak hautatzeko: sailkapenekoak eta dibertsifikaziokoak

Sailkapen irizpideak

Udalak aukeztutako eskaeraren balorazioa aipatzen dute. Balorazio handiena duten udalerriak hautatuko dira. Hauek dira sailkapen hori ezarriko duten irizpideak:

Sailkapeneko irizpideak	100 puntu arte
Aurrejarrera eta motibazioa	34 puntu arte
Esperientzia eta ikuspegia	33 puntu arte
Gizarte zibilaren babesa	33 puntu arte

Dibertsifikazio irizpideak

Aurkeztutako eskabidearen balio objektiboak eta independienteak aipatzen dituzte. Nafarroako lurraldearen aniztasunaren adierazfarritasuna bermatu nahi dute, proiektuan kasuistika oso desberdinak eta despopulazioaren aurkako borrokaren ikuspegiak aberasteko gai direnei sartzeko aukera emanaz. Irizpide horiek hautatutako udalerriak eremu, biztanleria maila eta abar batean biltzea eragotziko dute. Irizpide horiek honako hauek dira:

Eremuen araberako banaketa

Udalerri aniztasuna bilatuko da, eskualdearen eta lurraldearen arabera.

Biztanle kopuruaren araberako banaketa

Biztanle kopuruaren arabera udalerri aniztasuna bilatuko da.

Despopulazio mailaren araberako banaketa

Despopulazio mailaren arabera udalerrien aniztasuna bilatuko da.

Udalerriak hautatzeko irizpideak

Nafarroako despopulazioaren aurkako estrategiaren eremuak Helburuak					
1 Biztanle berriak	2 Oinarrizko zerbitzuak	3 Herrietan bizi diren pertsonen gizarte harremanak	4 Kohesio ekonomikoa	5 Lurralde kohesioa	6 Landa bizitzaren nortasuna eta balioa
<p>Biztanle berriak integratzeko baldintzak ezartzea, demografiari eustea eta suspertzea ahalbidetzeko.</p>	<p>Despopulazio arriskuan dauden eremuetan bizi diren pertsonen oinarrizko zerbitzu publikoetarako sarbide zuzena izango dutela bermatzea.</p>	<p>Landa eremuko gizarte kohesioa indartzea, gizarte harremanetarako eta bizi proiekturako gune positibo gisa.</p>	<p>Eredu ekonomikoaren aldaketa bultzatzea, baliabide endogenoen (ekonomia berdea) balioan jartzean eta kudeaketa iraunkorreetan oinarritutako eredu baterantz.</p> <p>Landa eremuetan prestakuntza, eremu, berrikuntza eta ekintzailtza baliabideetarako sarbide zuzena erraztea.</p>	<p>Landa eremuen garapena ahalbidetuko duen asentamendu eredu orekatua eta iraunkorra bultzatzea.</p>	<p>Landa nortasunari, landa bizitzari eta haren balioei balioa ematea, etengabeko bilakaeran.</p>

Udalerriak hautatzeko irizpideak

Nafarroako despopulazioaren aurkako estrategiaren eremuak Jarduera ardatzak		
1 Biztanle berriak	2 Oinarrizko zerbitzuak	3 Herrietan bizi diren pertsonen gizarte harremanak
1.1 Aldi baterako biztanleriaren integrazio demografikoa	2.1 Landa biztanleriari arreta eta zaintza emateko sistemak egokitzea, bereziki adinekoei eta haurrei zuzendutakoak	3.1 Landa eremua sustatzea berdintasunezko, erantzunkidetasunezko eta askotariko bizi eremu gisa
1.2 Migratzaileentzako gune erakargarriak eta harrerakoak ezartzea	2.2 Landa eremuetako hezkuntza hobetzea, biztanleria finkatzeko funtsezko elementu gisa, batez ere familia gazteak	3.2 Landa eremua sustatzea, gazteentzako aukera gune gisa
	2.3 Osasun zerbitzuetarako sarbide zuzena	3.3 Kultura eta kirola sustatzea, landa munduan sozializatzeke funtsezko elementu gisa
	2.4 Biztanleriaren bizitzarako oinarrizko elementuen hornidura (merkataritza, botika, etab.)	3.4 Belaunaldien arteko harremanak indartzea, ezagutza emozioanla, praktikoa eta abar eskualdatzeko prozesu gisa
		3.5 Asoziazionismoa, lankidetzeta eta boluntarioritza sustatzea, bereziki emakumeek gidatutakoa.

Udalerriak hautatzeko irizpideak

Nafarroako despopulazioaren aurkako estrategiaren eremuak Jarduera ardatzak		
4 Kohesio ekonomikoa	5 Lurralde kohesioa	6 Landa bizitzaren nortasuna eta balioa
4.1 Ekonomia berdean, gizarte berrikuntzan eta ondare baliabideen balioan oinarritutako jardueren garapen endogenoa bultzatzea	5.1 Udalez gaindiko eremua despopulazioaren eta erronka demografikoaren aurka borrokatzeko oinarritzko gune gisa ezartzea	6.1 Landa nortasuna balioestea eta positibizatzea
4.2 Ekintzaitzeta endogenoa sustatzea, biztanleria finkatzeko oinarri gisa	5.2 Hirigintza tresnak herrien aukera eta beharretara egokitzea	6.2 Landa kultura eta ondarea eta horien etengabeko bilakaera sustatzea.
4.3 Landa turismoa garapen ekonomiko iraukorreko elementu gisa	5.3 Etxebizitza despopulazioaren aurka borrokatzeko tresna gisa	
4.4 Pizgarriak (Fiskalak eta ez fiskalak) eta diskriminazio ekintza positiboa ezartzea despopulazioa dagoen eremuetan	5.4 Biztanleen konektagarritasun digitala eta gaitasun digitalak	
4.5 Landa eremuen beharretara egokitutako prestakuntza programa egonkorak bultzatzea.	5.5 Landa eremuetako baldintzetara egokitutako mugikortasun ereduak eta alternatibak ezartzea	
	5.6 Landa ongizaterako oinarritzko azpiegiturak	
	5.7 Politika publikoek lurraldean duten eragin demografikoaren ebaluazioa	



Pueblos Vivos de Navarra
Nafarroako Herriak Bizirik

DEIALDIAREN OINARRIAK